## Lanaren nondik norakoak:

• Zuetako bakoitzak Urdaibaiko 6 izaki bizidun sailkatzeko gako dikotomiko bat prestatu behar du. Taldekide bakoitzak hauetako multzo bat aukeratu beharko du:

| **ANFIBIOAK eta NARRASTIAK** | **UGAZTUNAK** |
|---|---|
| *Rana temporaria* (baso-igel gorria) | *Mustela lutreola* (bisoi europarra) |
| *Salamandra salamandra* (arrabioa) | *Rhinolophus euryale* (ferrasaguzar mediterranearra) |
| *Lacerta schreiberi* (Schreiber muskerra) | *Micromys minutus (uzta-sagua)* |
| *Trachemys scripta* (Floridako apoarmatua) (*)espezie inbaditzailea | *Glis glis* (muxar grisa) |
| *Lacerta vivipara* (sugandila bizierrulea) | *Erinaceus europaeus* (trikua) |
| *Natrix natrix* (suge gorbataduna) | *Sorex minutus* (satitsu txikia) |
| **HEGAZTIAK** | **ORNOGABEAK** |
| *Platalea leucorodia* (mokozabala) | *Lucanus cervus* (arkanbelea) |
| *Grus grus* (kurriloa) | *Austropotamobius pallipes* (ibai-karramarroa) |
| *Charadrius dubius* (txirritxo txikia) | *Cerambyx cerdo* (kabripornio handia) |
| *Phalacrocorax aristotelis* (ubarroi mottoduna) | *Oxygastra curtisii* |
| *Pandion haliaetus* (arrano arrantzalea) | *Thaumetopoea pityocampa* (prozesionaria sitsa) |
| *Ardea cinerea* (koartza hauskara) | *Elona quimperiana* |

• Amaitzean, zirriborroa taldekideei erakutsi, egokia eta ulergarria iruditzen zaien aztertuz. Azkenik, zirriborroa irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan.

• Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko eskema eta gorde zuen portfolio digitalean.

• Hemen dituzue zenbait pista erabil ditzakezuenak:

**ANFIBIOAK eta NARRASTIAK**: hankarik duen ala ez, azal hezea duen (anfibioen kasua) edo ezkataz estalitako azal lehorra (narrastien kasua), oskolik duen, isatsik duen ala ez eta nolakoa, gorputzaren forma eta kolorea, azal leuna edo zimurtsua, azal distiratsua, azalaren marrazkiak...

**UGAZTUNAK**: hegan egin dezakeen ala ez, arantzarik duen ala ez, isatsa potoloa edo fina den, luzea edo motza den, muturraren forma, begien tamaina...

**HEGAZTIAK**: Mokoaren forma eta tamaina, nolako lepoa duen, hanken luzera, gorputzaren tamaina, lumen kolorea, hegalen forma eta tamaina, isatsarena...

**ORNOGABEAK**: Elitrorik duen ala ez (kakalardoenak bezalako hegal gogorrak dira), oskolik duen, oskolaren forma, matxardarik duen, adar luzerik duen, antena luzerik duen, hegalen kolorea, hegalen tamaina, hegalen itxura, gorputzaren forma...